

Adi!

Tailer hauek euskara hutsean izango dira, helburua, familia barruan zein familia artean euskararen erabilera bultzatzea eta harreman sarea ehuntzea da.

Parte hartzaileek ezinbestean euskara jakin behar dute parte hartzeko.

Estos talleres se desarrollarán íntegramente en euskera, ya que tienen como objetivo fomentar el uso del euskera en el ámbito familiar así como crear y fortalecer la relación entre familias que viven en euskera. Por lo tanto la persona adulta que acompañe al menor debe ser capaz de comunicarse en euskera.

Norentzat?

4 urtetik aurrera duten haurrentzat + heldu bat
LEKU MUGATUA

Izena emateko epea

Izena emateko aukera zabalik egongo da
tailer bakoitzaren aurreko astelehenera arte

Izen ematea eta informazioa

PARTE HARTZEKO EZINBESTEKOA DA
ALDEZ AURRETIK IZENA EMATEA

Euskara Zerbitzua, Jose Ramon Aketxe
Plaza 11 (Kultur Leioa) 4. Solairua.

✉ Euskarazerbitzua@leioa.net

☎ 946072576

COVID 19-a dela eta unean-uneko segurtasun eta babes neurri eta arau guztiak bermatuko dira. Horrek edukiera edo eta egutegia moldatu beharra eragin lezake. Indarrean dagoen legeari jarraituz, Covid Ziurtagiria eskatuko zaie bertaraten diren helduei.

• Leioako euskara zerbitzua •

FAMILIAN

Aisialdia euskaraz bizi

 **Leioa**
UDALA-AYUNTAMIENTO

 **Bizkaia**
foru erkundea
diputación foral

ISTORIO HARRI-GARRIAK

“Story Stones”-en teknika baliabide narratibo moduan erabiliko dugu istorio bat sortzeko asmoarekin. Parte hartzaileek ausaz elementuak hartuko dituzte eta hauetatik abiatuta, norberak istorio bat sortuko du, istorio pertsonal eta bakarra. Amaieran, guztion sorkuntzak aurkeztuko dituzte parte hartzaileek eta horrela konprobaturiko dugu, nola pertsona bakoitzak elementu berberetatik abiatuta istorio desberdin eta bakarrak sortu dituen.

URTARRILAK 15, Pinueta ludoteka / 11:30

URTARRILAK 21, Kultur Leioa / 17:30

EGIN ZEURE TRESNA ETA JO BATUKADA!

Taldean musika jotzea erraza izan daitekeela ikusiko dugu. Erritmo ezberdinak landuz, instrumentu ezberdinak frogatuz, denbora eta abiadurarekin jolastuz... baina tira, ez da batukada arrunt bat izango, gure musika tresnak birziklatuak baitira!

OTSAILAK 5, Pinueta ludoteka / 11:30

OTSAILAK 11, Kultur Leioa / 17:30

SERIGRAFIA

Serigrafia teknikaren azalpen xume baten ostean, estanpazioari ekingo diogu. Partehartzaile bakoitzak nahi beste proba egin ditzake amaieran jasoko duen tote poltsa serigrafiatzeko prest egon arte!

MARTXOAK 5, Pinueta ludoteka / 11:30

MARTXOAK 11, Kultur Leioa / 17:30



ROYAL ICING GAILETAK

Gailetak eta gozogintza-mauka erabiliz pertsonaia, animalia, objektu desberdinak sortu eta gozogle handiak bihurtuko gara... eta bide batez, koloreak nahasten eta gure gailetak margozten ikasiko dugu.

APIRILAK 1, Kultur Leioa / 17:30

APIRILAK 2, Pinueta ludoteka / 11:30

AMETS-HARRAPAKARIAK

Hainbat kulturatan ametsen interpretazioa eta amets gaiztoen aurrean zinginariak sortu izan dituzte. Horien artean, amets-harrapakariak edo “atrapasueños” delakoak, aurkitzen dira; guk etxera eramateko sortuko ditugu, gure logelak apaintzeko.

MAIATZAK 7, Pinueta ludoteka / 11:30

MAIATZAK 13, Kultur Leioa / 17:30



Tailerren
iraupena:
70-90 min.
artean.